

KONTSONANTE BUSTI-PALATALEN GRAFIAZ EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIA

Euskaltzaindiak, beste arloetan bezala honetan ere orok euskaraz ortografia bat berbera erabiltzea beharrezko dela ikusirik eta Resurrezio Maria Azkue, euskara batzeko asmoz "gipuzkera osotua" proposatu eta bultzatu zuen lehen Euskaltzainburu ospetsuak arrazoiz orniturikako bide beretik abiatu eta egungo eguneon, zorionez, delako joera ortografiko hori hedatzeko bide sendoan doala ikusirik, hurrengo erabakia hartzen du, izkribuz baliatzen diren guztiei etorkizunerako hobetzat gomendatuz:

1. Euskaltzaindiak ontzat hartzen ditu *ñ, ll, tt, dd, x* eta *tx* kontsonante palatalen grafiak balio adierazkorra duten kasuetan, hala nola *andereño, haurño, ñabar, llabur, ttantta, edder, Maddalen, goxo, hortxe* hitzetan agertzen direnak.

2. Egituraren bidez, aurreko *i*- bokala dela medio, leku batzuetan sortu diren palatalizazioetarako, ordea, *-in-, -il-, -it-, -int-* eta *-ind-* erabili behar dira, palatalizaziorik egiten ez den eskualde eta alderdietan bezalaxe, hala nola *baina, mutilla, ditu, pinta-, indarra,* eta abar.

3. Halaber erdaratikako hitzetan, despalatalizazioaren bidez sortu den grafia ontzat harturik, hala nola *Espainia, gaztaina, teila* eta abar.

4. Halaber ez dira erabili behar *x* eta *tx*, sibilante palatalak seinatzeko ditugun grafiak, egituraren bidez, aurreko *i*- bokala dela medio, sortu direnean, hala nola *aizea, itsua, gizona,* eta ez *axea, itxua, gixona,* azkenengoa gizon txikia edo kaskarra adierazteko erabiltzen ez baldin badugu, halako hitzak hipokoristikotzat har baitaitezke.

5. Toponimian, ordea, historia hurbileko egituraren bidez sorturikako palatalizazioa ez baldin bada, *i-* gabeko kontsonante palatalen grafiak erabiliko dira, hala nola *Iruñea, Urruña, Mañaria, Mañeru, Oñati, Amallobieta, Mendexa, Etxaleku*, eta abar, baina *Markina, Abadino*.

6. Ortografia lege hauek berdin balio dute edozein euskalkitan eginikako izkribuetarako ere.

7. Erabaki hauek grafiari begira daude eta oraingoz ahoskatzeaz ez da ezer adierazten.

Batzordeko diren Jose Luis Lizundia, Ibon Sarasola eta Alfonso Irigoyen-ek, eskatu bezala Euskaltzaindiari zuzentzen dioten proposamendua:

(Euskaltzaindiak onartu eta erabakia Donostian, 1978ko Azaroaren 24eko batzarrean).

Donostian 1978-X-27